

Alferrikakoaren egiaren inguruan. Elkarrizketa Belen Gopegui

Miren Eraso

2005eko maiatza eta ekaina artean, Periferiak izeneko topaketen hirugarren saioa egin zen Bilbao eta Donostian. Democracias de guerra y devenir territorio de una economía mundo izan zen aurtengo gertaldiaren izenburu orokorra, eta Belen Gopegui (BG) haren protagonistetako bat. E-postaz egindako elkarrizketa honetan, bere hitzaldiaren jendaurreko irakurketan jorratutako zenbait gai aztertu nahi izan ditugu, eta arakatzeko jarraitu politikarekin, fikzioarekin, errealearekin eta idaztearekin duen harremana.

ME Alferrikakoaren egiaren inguruan zuen izenburua zure hitzaldiak, eta bertako gizonak, eskua kristalean jarrita eta kalera begira dagoela, ez du jadanik iraultzaz amets egiten. Zein unetan utzi zion hartaz amets egiteari?

BG Hitzaldi hartako gizonak era mailakatuan utzi zion amets egiteari. Harresia erori baino urte batzuk lehenagotik gaur arte. Hala ere, uste dut hitzaldi horren gaia, funtsean, giza faktorea dela, erabakimena, zein neurritan huts egin daitekeen minutu batzuetan, zein neurritan asma daitekeen, eta ongi erabaki, minutu batzuetan. Kontzientziaren distiraldia. Nire teoria da distiraldi hori gertatu egin daitekeela hura bultzatu eta islatuko duen testuinguru bat baldin badago. Gizonak testuinguru horretara iristea lortzen duenean, osteria egiten du amets iraultzarekin; eta iraultza hori, Cernudaren hitzei jarraituta, defini liteke orobat herrialde kapitalista bateko *Katrina* baten kontrara: “bere sumin urdinaz hainbeste miseria hotz irentsiko lukeen itsasoa”.

ME Zure azken idazkietan, etengabeak dira egungo gizarte kapitalistari egiten dizkiozun kritikak, eta iraganaren nolabaiteko nostalgia, garai hartan aldaketa posiblea izan baitzen.

BG Susmagarria egiten zait egun indarrean dagoen nostalgia ideia, ez dut uste ezer bikainik galdu dugunik, eta aldaketa gaur posiblea delakoan nago. Ikusiak ikusita, ez dirudi trantsizioan aldaketa hain hurbil egon zenik; edonola ere, zenbait pertsonak, azkenean gutxi batzuek, eskatu zuten, baina, jakina denez, PCEk paktatu egin zuen orduan funtsezkoa zen hartan amore ematea. Kritika etorkizunetik egiten da beti, zuzenketarako espazioa badagoela pentsatzen delako egiten da. Hori da nire ikuspegia; beste gauza bat da nire liburuetan akatsak egotea eta nostalgian bizi den anbiguotasun hori iradoki ahal izatea. Liburuz liburu, saiatu naiz anbiguotasunetik ahalik eta gehien urruntzen. Kapitalismoari egiten diodan kritikak eginda egon nahi luke, eta hala izan dadin saiaturako naiz, borondatearen baikortasunaz; baita, ordea, agian premiaren baikortasuna esan lekiokkeen horretaz ere.

ME Zure eleberri eta filmetan irtenbide banakakoa marrazten da egungo paisaia neoliberalari aurre egiteko aukera moduan. Arrakasta profesionala (sozial zein ekonomikoa) alde batera utzi eta alde ekonomikotik hain “ahaltsua” ez izan arren, berarentzat “aberatsagoa” den bizitza pertsonal baten alde egitea izaten da zure pertsonaia batzuen patua. Haiiek, nola edo hala, beren eraldatze prozesuan, erlatibizatu, are hankaz gora jarri ere, egiten dituzte porrota eta arrakasta sozialaren aukerak. Baina nola utz diezaiokegu daukaguna, eta edukitzeko geratzen zaiguna, desiratzeari?

BG Uste dut nire pertsonaien irtenbide pertsonala beti egon dela taxututa politikoa ez bazen ere, gutxienez politikaren zain zegoen irtenbide baten gisara. Ez dut inoiz bere bidea tomateak landatuta edo gaztak ekoizita aurkitzen duen pertsonaia mota hori eraiki, eta bi jarduera horiekiko begirune osoz diot hori. Nire pertsonaia horiek badakite ez dagoela inorena ez den lurrik; gaztak merkatuan saltzen dira, eta gaur egun dagoen merkatua talde

ekonomiko handien mendean dago. Aipatzen duzun buru-eusmena, nire ustez, aldaketa iraultzaile baten ondorioa izan liteke, ez, ordea, hara iristeko bidea. Kapitalismoa, Santiago Albak idatzi eta esango nuke ia frogatu duen bezala, bere gosearen biktima da, jan egin du Albak ondasun orokorrak deitzen dien horiek: elektrizitatea, hezkuntza, etab.; eta orain ondasun unibertsalak jateari ekin dio: airea, genoma, kolore urdina. Kapitalismoari ezin esan dakiok: mesedez, izan zaitez moderatuxeago, kutsa ezazu apur bat gutxiago, esplota ezazu apur bat gutxiago. Beste sistema bat aukeratu eta ezarri beharra dago. Eta hori ez da lortuko banako borondate on hutsaren bidez; behar-beharrezko baldintza da borondate on hori antolatzea, politikoki antolatzea. Agian ez da baldintza nahikoa, baina badakigu edozein unetan lokartuta zeuden hainbat eta hainbat tentsio askatu egin litezkeela akats batengatik, hondamendi batengatik, ausardiakzko ekintza batengatik, xumea izan arren beste batekin eta beste batekin elkartzen dena kate-erreakzio bat eragin arte, eta abar.

ME Susmoa daukat hartu dugun heziketa, eta sustatzen jarraitzen duguna, lanean eta kontsumoan oinarritutakoa, aldatu egin beharko litzatekeela. Beharbada, Paul Lafargue proposatu bezala, nagia izateko eskubideaz.

BG Ez dut uste haur bat hezi daitekeenik kontsumitu ez dezan, haren inguru osoan, jolasetan, filmetan, baina baita haren gurasoak bizi diren exijentzietan ere, denak oihuka ari zaizkionean: Kontsumitu! Heziketa helburu bati lotuta dago: institutu irakasle batek nola heziko ditu aldirietan bizi eta heziketa horrekin ezingo dutela ezer egin dakitenak? Heztea hezibidea ematea da, eta jendeak hutsune batean sartu behar du: indartsuenaren legearen hutsunean. Beste lege bat indarrean dagoenean, orduan posiblea izango da bestelako heziketa bat. Nagia izateko eskubideari dagokionez, kontua da ea nor erabakitzen duen zer ekoitzi behar den. Gizarte kapitalista batean, kaosak erabakitzen du hori, korporazio handiei datxekien jatunkeriaren ondorioa den kaosak; gailera gehiegi ekoizten dira koipe kaltegarriez, eta faltan dira erabilera-balioa eta ez bakarrik truke-balioa duten ikerketa proiektuak. Baina horrek ez dio axola herrialde kapitalista bateko ezin politikariri; halako beldurra diote plangintzari, non uko egin baitote politikari izateari: errealitatean, ez dira. Nola izan daiteke politikari, berak gobernatzen duen herrialdeak behar dituen gauzei buruz erabakirik hartu ezin dezakeen norbait? Inork hautatu ez dituen eta gehien-gehienetan politikariak itxuraz bakarrik gobernatzen duen herrialdekoak ez diren enpresa batzuen eskuetan konpetentzia hori uzten duen norbait?

ME *Lo real* trantsizio espainiarraren argazkia da, eta bertan behin baino gehiagotan aipatu izan dugun espazio komuna desagertu egin da, eta bide eman dio aberaste pertsonalari. Eta boterea arrakasta aukerari lotuta geratu da. Zer erlazio ikusten duzu errealitatearen eta fikzioaren artean?

BG Aberaste pertsonala burgesia tradizionalaren eta Jean-Claude Milnerrek gainsoldatapeko esaten dion burgesiaren funtsezko motorra izatea frankismoaren garaian existitu zen, eta indarrean jarraitu zuen ondoren. Horregatik da horren erraza medio handietako editorialak edo zutabegile gehien-gehienek artikuluak dezifratzea; aberaste pertsonalari, idazten duen pertsonarenari edo medio handiaren jabea den enpresarenari, ongi datorkion edo kaltetzen duen horren bidez irakurrita, oso erraza da zertaz, noiz eta zein terminotan hitz egingo duten igartzea. Medioen adibidea aipatu dut askoren begien bistan daudelako, baina gauza bera esan liteke hainbat eta hainbat bestelako ibilbide profesionalez. Zer printzipiok egiten dio aurre aberastearen printzipio honi? Gutxi egiten diote aurre. Nire eleberrietan aipatzen dudana espazio komuna, hari aurre egin liezaiokeena, komunismoari deitzeko era estetiko bat da, grekoa, eufemistiko eta iruzurtia, nahi bada, edo agian, estrategikoa bakarrik. Hitz hori entzuna izan dadin modu bat da, nahiz eta, zeure diskurtsoa aldatzen duzun bakoitzean gertatzen zaizun bezala, arerioaren presioaren arabera, azken batean jarduteari uzten ari zaio presio horren mende. Oso interesatzen zait dilema hori: maltzurkeria beharrezkoa da politikan, baina seguru asko ezinezkoa da era

maltzurrean jardutea funtsezko gauzei dagokienez. Baina tira, harira itzulita, une hauetan, European, aberaste pertsonalari apenas egiten diote gogor ondo egindakoa aristokraziaren hondar batzuek; badaude oraindik editoreak, agian idazleak ere bai, gauzak ongi eginda kapitalismoaren gusetik salbu dagoen espazio bat eraiki daitekeela uste dutenak. Posizio errespetagarria da, baina hondakin modukoa. Bizirik diraute, orobat, langile kulturaren eta buru-estimua eta lana ongi egitea bezalako kontzeptuen hondarrek, aukera libre delako eta ez ugazabaren etekina areagotzeko modua, beste aldetik, etekin hori gehienetan berdin-berdin areagotuko baita lana ez hain ongi eginda ere. Baina munstroa ez dago hiltzerik ez bide batetik ez bestetik; urrundu egin daiteke, guztiarekin bukatuko duen unea atzeratu. Hala ere, nik uste bizirik irauteko sena eta poz politikoa kolektibo eta egituratu baten nahasketa batek ederki egin liezaiokeela aurre aberaste pertsonalaren printzipioari; eta orain Jean-Claude Milnerrera itzultzen naiz, eta *El salario del ideal* lanean azaltzen duen tesi interesgarria. Bertan deskribatzen du nola XIX. mendeko burgesia errentadunari gaineratu zitzaion XX.ean kapitalismoak hasiera batean bere lanagatik ordainduko liokeena baino gehiago irabazten duen burgesia bat. Gainsoldata hori ez du irabazten bere lanaren ekarpenen trukean -alderantziz, profesional askoren lana zenbat eta erabilgarriagoa izan, gero eta kaskarrago ordainduak izaten dira-, baizik eta botere kapitalistarekiko onarpenaren trukean, botere horren aliatu konplize bihurtzearen trukean. Alabaina, une honetan kapitalismoa, erraz antzematen zaion bezala, behartuta dago murriztera, eta batzuetan kentzera, eskuarki soldata potoloetan edo lan baldintza pribilegiatuetan ordaintzen zen gainsoldata, esaterako, unibertsitateko irakasle askoren kasuan. Prozesu horrek aurrera jarraitzen baldin badu, kapitalismoak eraikitako defentsakoltxo handia bertan behera eroriko da, eta beharbada haren aurka egingo ez badu ere, ahultze faktorea bihurtuko zaio. Nolabait esateko, indarkeria zuzena erabili gabe -gaur egun zeharkako indarkeriaren bidez lortzen da, besteek burgesaren, soldatapekoa edo ez, izenean egiten dutenaz- aberaste pertsonala lortzeko zailtasunak jarriko luke benetan kolokan motor hori. Errealitatearen eta fikzioaren artean, zure galderaren azkeneko parte erantzutearen, erlazio desberdina ikusten dut: nik esango nuke fikzioak errealitatea aldatzeko gaitasun diskretua duela; errealitateak, berriz, konstruktio soziala den aldetik, eragin larria du fikzioaren gainean.

ME Zure idaztea kritikoa da ezarritako balioekin, baina inoiz adierazi izan dituzu literaturak diskurtso menderatzailearekin gatazkan sartzen diren ideiak zirkulatzen jartzeko duen gaitasunaren inguruan dituzun zalantzak. Hélène Cixous-ek *La risa de la medusa* zioen bezala, liburueta ari zela: “Mundu guztiak daki badagoela leku bat behartuta ez dagoena ez ekonomikoki ez politikoki doilorkeria guztietara eta konpromiso guztietara. Sistema erreproduzitzera behartuta ez dagoena”. Literatura gai izan ote liteke hura ahultzeko?

BG Ez dut liburu hori ezagutzen, eta ez dut uste mundu guztiak hori dakienik. Gogoko dut jakintzat ematearen estrategia erretorikoa, baina ez da horrela. Non dago leku hori? Etorkizunean baldin badago, edo irudimenean, orduan ez da leku bat. Kuban baldin badago, adibidez, orduan hori ez daki mundu guztiak. Nire ustez herrialde sozialista bat da herrialde bat zeinean hemen ekonomia esaten zaion hori, hau da, korporazio handien interes ekonomikoak, batzuetan haien barruan sartuta Estatu defentsa ministerioak, bada hori, leku horretan ekonomia ez dagoela politikaren gainetik. Bestalde, doilorkeria txarra da berez, baina konpromisoek ez dute zertan izanik; esate baterako, Kubak konpromisoa sentitzen zuen herri sahararrarenganako, eta horrek bultzatuta uko egin zion Marokorekin harreman komertzialak izateari, nahiz eta alde ekonomikotik oso interesatuta zegoen harreman haieran. Imajinatzen dut idazlea jarrera batez ari zela, leku batez baino gehiago. Inoiz idatzi dut jarrera bat sentimendu pentsatu bat dela. Cixous arituko zen beharbada bidegabearen aurrean ez makurtzeko jarreraz, berdintasun, justizia eta askatasun proiektu bati leiala izateko jarreraz. Literaturak inongo baliorik baldin badu, nire iritzian, hori

gertatzen da zenbait testu, gehienetan ez ospetsuenak eta gorai patuenak, saiatu direlako jarrera hori elikatzen, iraunarazten eta hari lekua ematen.

ME Gai horri dagokionez, aipa dezagun kasu praktiko bat: *El lado frío de la almohada* argitaratu ostean, zure eleberria kritikatu zuten *establishment* antikastristarekin bat egiten ez zuelako. Nolakoa izan da zure esperientzia? Zure jarrerak eraginik izan al du salmentetan?

BG Esperientzia interesgarria izan da, hari esker bidea ireki zaiolako nolabaiteko eztabaida politiko bati, eztabaida hori posiblea izaten den leku nolabait esateko alternatibo baina minoritarioetatik haratago. Hala ere, uste dut hori gertatu zela berriro ere strategiagatik, kasu honetan literatur kutsuko hizkera eta ambigüotasunaren mugan zeuden iritziak zeuzkan eleberri bat idazteko estrategia, hartara hitza eman zekidan. Gero, elkarrizketetan aukera izan nuen eleberrian zegoenetik haratago joateko. Aldi berean, agerian geratu da, beste aldetik, bagenekien gauza bat: medio handiek ez diotela sekula espazio errealik emango -erreal diodanean ez sinboliko esan nahi dut, ez aldi batean berebizikoa dela, eta gero kito- Kubako iraultzaren alde dauden jarrerei. Zaldiaren barruan zer zegoen jakin zenean, desagertu egin zen medio handietan hitz egiten jarraitzeko aukera. Horrek agerian uzten ditu bizi garen sistemaren mugak. Kontua ez da ezin daitekeela terrorismoaren apologiarik egin; kontua da ezin daitekeela sozialismoaren apologiarik ere egin, eta sozialismoa diodanean produkziobideen jabego pribatua zalantzan jartzeaz ari naiz. Teorian baimenduta dago hori egitea, baina bigarren mailako lekuetan, inoiz ez hamar mila pertsona baino gehiagorengana iritsi daitezkeen tribunetan. PSOE alderdi kapitalista da, inork ez luke, ez alderdi barruan ez kanpoan, bestelakorik esango. Izquierda Unida, oraingoz, kapitalismoa "hobetzen" saiatzen den alderdia da, hau da, hura ere kapitalista. Ez parlamentuan ez komunikabide handietan ez dago bizi garen sistemaren inguruko eztabaidarik.

Salmenten inguruan egin didazun galderari dagokionez, batez besteko salmenta berdintsuak izaten dituzte nire eleberriek, eta honetan ere gauza bera gertatu da; agian pare bat mila ale gehiago salduko ziren polemikagatik, baina uste dut gertatu zen gauza bakarra izan zela azkarrago saldu zirela, zeren epe ertainean beste liburuen ale kopuru bera salduko dut, nahiz eta imajinatu lekualdatze batzuk gertatuko zirela, irakurle mota batzuk alde egin eta beste batzuk etorriko zirela. Azkenik, ikustekoak izango dira polemikaren ondorioak epe luzera. Nolakoa izango da eztabaida nire hurrengo eleberria idazten dudanean, beste eleberri bat idazten baldin badut: politikaz hitz egingo da, formaz? Politikaz jarduteko erabiliko ote da forma?

ME Horren haritik, egile eskubideez eta jabego intelektualaz mintza gintezke. Behin baino gehiagotan adierazi duzu edukien hedapen librearen alde zaudela. Nola ulertzen duzu ideia hori bere liburuen salmentatik bizi den idazlea zaren aldetik?

BG Uste dut copyleft delakoa nahitaezkoa dela, eta nire hurrengo liburua harekin argitaratzen ahaleginduko naiz. Copyleftak, beste aldetik, ez du eraginik liburu salmentetan, oso neurri leuna da. Niri gustatuko litzaidake egile eskubideak ezeztatzea, baina aldi berean bizimodu bat ateratzea; nire lanak bizi ahal izateko adina ematea, beste edozein pertsonarenak bezalaxe. Ez dut ulertzen lan intelektualak zergatik izan behar duen bestelako erregimenik. Gertatzen da, ordea, egile eskubide horien ezeztatze horrek idazleei, beste edozein herritarri bezala, esplotatu gabe eta esplotatua izan gabe bizitzen uzten dien sistema batean gertatu beharko lukeela.

ME Psikologia, fisika, politika, geografia edo historia dira, besteak beste, zure eleberrietan landu izan dituzun diziplinak. Nahasi egiten dira zure pertsonaien historia eta sentimenduekin, haiek, aipatu duzun bezala, egin, ezagutu, imajinatu eta ahalegindu egiten baitira. Nola eraikitzen dituzu zeure eleberriak?

BG Ez daukat metodo finkorik, gehienetan saiatu naiz galdera bati narrazioaren bidez erantzuten, eta aipatu dituzun diziplinak aztertu ditut uste dudalako lan egiten duten pertsonaiez ari garenean, ez dela komenigarria lana era anekdotikoan besterik gabe aipatzea; jakin egin behar da zer gertatzen den lantegian eta zer gertatzen den bizitzaren bora ere baden lan denboran. Gaur egun narratibaren parte handi bat pribatizatu egin da; ez du bakarrik politika militantea alde batera utzi, baizik eta familia gatazken edo fantasia metaliterarioen guneetara atzeratu da. Nire iritzian, alor horiek ez dira nahikoak, eta ezin bereiz daitezke eguneroko bizitzatik; fantasiak eta familia gatazkek desberdinak izaten dira, bizimodua ateratzeko presioaren arabekoak; bizimodua ateratzea esaerak berak ere eta hori egunerokoa izateak ez dio larritasunik kentzen, adierazten du partida hori irabazteko esplotazio egoera ezin daitekeela alde batera utzi. Orain neure buruari galdetzen diot nola eraiki behar dudana hurrengo eleberria, eta jakina, buruan gero eta zehaztasun handiagoz sumatzen dudana baizik ez badaukat ere, eleberri ona esaten zaion baten arauak faltsututa daude jokalaria iruzurti baten dadoak bezala; horregatik, pentsatzen hasi beharra dago arau horien aurretik dagoen leku batean.

ME Ni esateko zailtasuna, Christa Wolf-ek aipatzen duena *Noticias sobre Christan*, kritika feministak eztabaidatu izan duen gaia izan da, erlazionatuta dagoelako emakumeak gizartean tradizioz izan duen aginte gabeziarekin. Gai hori, era batera edo bestera, beti agertzen da idaztean, baita zure idaztean ere. Joan gaitezen une batean *La escala de los mapas* lehen ataleko bukaerara; bertan, subjektuaren aginte agerian geratzen da ustekabea, eta irakurlea harritu eta niaren, narratzailearen eta protagonistaren aniztasuna zalantzarik gabe planteatzen du. Anibalentzia horrek markatu egiten du irakurketa osoa, ez baita planteatzen ni esateko zailtasuna, jakintzat ematen delako, baizik eta harekin jolasten da.

BG Emakumea izatea ez dago klase-borrotatik kanpo: zeharka gurutzatzen da borroka horrekin. Emakumea izateak ekartzen du esplotazioaren ezagutza handiagoa izatea, gizon batek egoera berean izango lukeena baino. Juan Carlos Rodriguezen esanetan, ni esateko zailtasuna *ni naizetik dator: zer naiz ni?* Kapitalismoan, pertsona gehienok esplotazioaren predikatua gaineratu behar izaten dugu, eta horrenbestez *ni naiz* horren askatasuna ez da jada inongo askatasuna. Horri generoarena gaineratzen bazaio, esplotazioa areagotu egiten da. Nire lehen eleberrian zailtasun hori saihesten saiatu nintzen, zeharrazaren bidea erabilita. Bide zuzenagoak egon behar lukete, eta haien bila ahalegindu nintzen *Lo realeko* narratzailearengan *esplotatua naiz* bikoitz hori txertatzen. Idazten ari zaren testuinguruarenaz, literaturan indarrean dirau paternalismoak emakumeek idazten duten eta idatzi dutenari dagokionez, harri eta zur uzten nau zein neurritan dirauen indarrean.

ME Liburuetakako eskaintzak aintzatespen eta esker oneko erakusgarriak izaten dira. Zure azken liburua lau emakumeri eskaini zenien, haien artean Maria Moliner. Jakinaraziko al diguzu eskaintza horren atzean ezkutatzen den sekretua?

BG Elizak orain Galileori barkamen eskatzen dion bezala, Real Akademiak egunen batean iraina kitatu eta barkamen eskatzea espero dut, bere historiaren gauza absurdoena egiteagatik Maria Moliner akademiko ez izendatzean. Jakina, hiztegiaren egilea Pedro edo Jaime Moliner izan balitz, bestelakorik gertatuko zen. Zirkunstantzia hori alde bat utzita, eskaintzan aipatzen dut nolako zorra dudana ezagutzen dudana hiztegi ederren eta zehatzenarekin. Idazteaz jakin dezakedan apurretik gehiena hiztegi horren bidez ikasi dut. Eta, bide batez, jatorrizko edizioa hobesten dut, hitzak familien arabera ordenatzen dituenak, eta ez ordena alfabetikoaren arabera. Hitz bakoitzaren inguruan hitzean bertan adina jakintza dago. Ordena alfabetikoaren irizpide funtzionalak jakintza hori gabe uzten zaitu; eraginkortasunak, beste hainbat alditan bezala, epe laburreko errentagarritasuna jartzen du beste edozein balioren gainetik.

BELEN GOPEGUI Madrilén jaio zen 1963an. Zuzenbidean lizentziatua da. Kolaboratzaile izan da zenbait egunkari-medio eta argitaletxetan. Literatura ikastaroak eman ditu, bai zinemarako gidoiak idazten lagundu ere (*La suerte dormida*, Angeles Gonzalez Sinderekin elkarlanean, eta *El principio de Arquímedes*, Gerardo Herrero zuzendua). Bost eleberri idatzi ditu: *La escala de los mapas* (Anagrama, 1993), *Tocarnos la cara* (Anagrama, 1995), *La conquista del aire* (Anagrama, 1998), Gerardo Herrero zinemara eramana 2000n *Las razones de mis amigos* izenarekin, gidoia Angeles Gonzalez Sindek idatzia, *Lo real* (Anagrama, 2001) eta *El lado frío de la almohada* (Anagrama, 2004).